Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko apirilaren 20a, osteguna — 75 — Jueves, a 20 de abril de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Goi-mendia, abentura, zientzia, esplorazioa eta dibulgazioarekin zerikusia duten proiektuak bultzatzeko 2023 Joxe Takolo Beka egitasmoa osatzen duen dirulaguntza emateko oinarriak eta bigarren deialdia. BDNS (Identif.): 686560.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/686560).

Alkatetza honek 2023ko apirilaren 3an emandako ebazpenaren bidez, 2023 Joxe Takolo Bekaren baitan dagoen dirulaguntza lortzeko eskariak eta beka bera ematea arautzen duen arauak onartu zituen, adierazi den helburuarekin bat datorren jardueraren bat antolatu nahi duten Euskal Herriko mendizale, mendi elkarte eta beste edozein eratako talde edo elkarteei zuzendua.

Ebazpen beraren bidez, 2023rako oinarriak eta deialdia onartu ziren. Deialdi hori hutsik geratu zen eta kirol sailaren proposamena aztertu ondoren, Alkatetzak 2023ko apirilaren 3ko ebazpen bidez bigarren deialdia onartu du.

2023ko udal-aurrekontuak 4.000 euroko aurrekontu-zuzkidura ezartzen du, guztira, aurrekontu-partidaren kargura: 1.0500.481.341.00.02 2023 Kirol Batzordearen transferentzia arruntak.

Deialdia eta beka eskatzeko behar diren gainerako dokumentuak Azpeitiko Udalaren www.azpeitia.eus webgunean daude, laguntzen eta dirulaguntzen atalean.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio deialdia onartu duen organo eskudunari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Bi kasuetan, oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

*Goi-mendia, abentura, zientzia, esplorazioa eta dibulgazioarekin zerikusia duten proiektuak bultzatzeko 2023 Joxe Takolo Beka egitasmoa osatzen duen dirulaguntza emateko oinarriak eta bigarren deialdia.*

1. *Helburua.*

Oinarri hauen helburua da Beka bat ematea, goi-mendia, abentura, zientzia, esplorazioa eta dibulgazioarekin lotuta dauden proiektu originalak, esploratzaileak eta dibulgazioak bultzatzeko.

2. *Baliabide ekonomikoak eta finantzaketa.*

Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa 4.000 eurokoa da 2023ko aurrekontu-ekitaldirako, eta 1.0500.481.341.00.02 2023 Kirol Batzordearen transferentzia arruntak aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da.

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Bases y segunda convocatoria para la concesión de la ayuda económica que integra el programa 2023 Beca Joxe Takolo, para impulsar la actividad de alpinismo, aventura, ciencia, exploración y divulgación. BDNS (Identif.): 686560.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/686560).

Por Decreto de Alcaldía de fecha 3 de abril de 2023 se aprobaron las Bases cuyo objeto es el de regular las solicitudes y concesión de la ayuda económica que integra la Beca Joxe Takolo-2023, dirigido a montañeros, clubes de montaña y otro tipo de grupos y asociaciones de Euskal Herria, que organicen alguna actividad que coincida con el objeto indicado.

A través de la misma resolución se aprobaron las bases y convocatoria para el ejercicio 2023. Dicha convocatoria quedó desierta y vista la propuesta del Departamento de Deportes, la Alcaldía, mediante Resolución de 3 de abril de 2023, ha aprobado la segunda convocatoria.

El presupuesto municipal del año 2023 establece una dotación presupuestaria por una cantidad total de 4.000 € con cargo a la partida presupuestaria: 1.0500.481.341.00.02 2023 Transferencias Corrientes Comisión Deportes.

La convocatoria y demás documentos necesarios para la solicitud de la beca se encuentran en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia www.azpeitia.eus en el apartado de ayudas y subvenciones.

Contra la presente resolución, que es definitiva y pone fin a la vía adminsitrativa, podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases.

*Bases y segunda convocatoria para la concesión de la ayuda económica que integra el programa 2023 Beca Joxe Takolo, para impulsar la actividad de alpinismo, aventura, ciencia, exploración y divulgación.*

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases, el otorgamiento de una Beca destinada a impulsar proyectos originales, exploradores y divulgativos estén vinculados al alpinismo, aventura, ciencia, exploración y divulgación.

2. *Recursos económicos y financiación.*

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 4.000 € para el ejercicio presupuestario 2023y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0500.481.341.00.02 2023 Transferencias Corrientes Comisión Deportes.

EK\CV GAO-I-2023-02665

*3. Onuradunak.*

Beka hau eskuratzeko aukera izango dute, deialdiaren urtean oinarri hauen helburuarekin bat datorren ekimenen bat antolatzen duten Euskal Herriko mendizale, mendi-elkarte eta beste hainbat eratako elkarte eta taldeek.

Partaideak mendiko profesionalak izanez gero, proiektuak ezingo du partaideen jarduera profesionalarekin zerikusia izan.

*4. Eskarien aurkezpena.*

Eskaera orria, eredu normalizatuan Azpeitiko Udalaren web orrian dago (S-24 inprimakia).

Eskabidea Azpeitiko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko da, behar bezala beteta, maiatzaren 15era arte (egun hori barne).

Parte-hartzaileek bi bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

— Aurrez aurre: eskabideak Azpeitiko Udal Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organo, establezimendu edo bulegoetan aurkeztuko dira.

— Bide elektronikoa: eskabideak aurkezteko, Udalaren egoitza elektronikora jo beharko da, haren web-orriaren bidez, edo 2023ko ekitaldiko laguntzen eta dirulaguntzen ataletik (izapidetzen ari diren laguntzak) edo on line izapideen ataletik Laguntza ekonomikoak/Joxe Takolo Beka.

Aurkeztu beharreko agiriak: Pertsona eskatzailea ez dago behartuta Azpeitiko Udalari aurrez eman dizkion dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskudunak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezan, edo ezin badu, beste bitarteko batzuen bitartez egiazta dezala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizuna.

Halaber, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako agiriak ez aurkezteko, 39/2015 Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2 artikuluaren arabera. Azpeitiko Udalak zuzenean eskatuko dizkio sektore publikoko edozein erakunderi Oinarri Orokor eta berezietan eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak. Hala ere, eskatzaileak aurka egiteko eskubidea du, eta aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamenduaren 21. artikulua).

Bekara aurkezten diren eskatzaile guztiek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

1. Diruz laguntzea eskatu den proiektu edo jardueraren ardura duen ordezkari edo pertsonak eskari-instantzia ofizialaren atal guztiak bete beharko ditu, eta horri Nortasun Agiriaren fotokopia erantsi eta proiektuan partaide izango direnen federazioko lizentzia.

2. Egin nahi den proiektuaren Oroitidazkia, hari dagokion aurrekontuarekin batera, bai paperean baita euskarri informatikoan ere.

3. Kontu korronteko titularitatea egiaztatzen duen ziurtagiria.

4. Azpeitiko Udalak eskuratu ezin dituen edozein dokumentu eskatu ahalko dio eskatzaileari.

Bitartekotzako plataformatik eskatuko diren zerbitzuak:

*3. Beneficiarios.*

Podrán optar a la Beca, los montañeros, clubes de montaña, y otro tipo de grupos y Asociaciones de Euskal Herria que, organicen dentro del año de la convocatoria, alguna actividad que coincida con el objeto de las presentes bases.

Si los participantes son profesionales de la montaña, el proyecto presentado no deberá tener ninguna relación con su ámbito profesional.

*4. Presentacion de instancias.*

La instancia de solicitud, según modelo normalizado se encuentra disponible en el página web del Ayuntamiento (impreso S-24).

La instancia deberá ser presentada, debidamente cumplimentada, en el registro del Ayuntamiento de Azpeitia hasta el 15 de mayo (ese dia inclusive).

Las personas participantes podrán presentar sus solicitudes utilizando cualquiera de estos dos canales:

— Canal presencial: las solicitudes se presentarán en el Registro municipal de Azpeitia o ante los órganos, establecimientos o dependencias previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Canal electrónico: las solicitudes se presentarán accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento a través de su página web, o bien desde el apartado de ayudas y subvenciones ejercicio 2023 –ayudas en tramitación–, o bien desde el apartado de trámites on line Ayudas economicas/Joxe Takolo.

Documentación a presentar por las entidades solicitantes: La persona solicitante no estará obligada a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente al Ayuntamiento de Azpeitia. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Solo en los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir al solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

Asimismo, los interesados tienen derecho a no aportar la documentación que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración según el artículo 28.2 del la ley 39/2015 del procedimiento administrativo común. El Ayuntamiento de Azpeitia recabará directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para comprobar el cumplimiento de las condiciones requeridas en las Bases Generales y especificas. No obstante, el solicitante tiene derecho a oposición y en caso de oponerse, deberá justificar las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento UE 2016/679 de Protección de Datos).

Todos los solicitantes que se presenten a la beca deberán presentar la siguiente documentación:

1. El representante o persona responsable del proyecto o actividad, para el que se solicita la subvención rellenará todos los apartados de la mencionada instancia oficial de solicitud, acompañando fotocopia del D.N.I. y fotocopia de la licencia federativa de los componentes del proyecto.

2. Memoria explicativa del proyecto a desarrollar, acompañado del correspondiente presupuesto, tanto en papel como en soporte informático.

3. Certificado acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente.

4. El Ayuntamiento de Azpeitia podrá requerir al solicitante cualquier documento al que no tenga acceso.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos:

EK\CV GAO-I-2023-02665

G.F.A.: Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

A.F.A.: Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

B.F.A.: Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

E.A.O.: Nafarroako Foru Ogasuna-Zerga betebeharren ordainketa egunean izatearen eskumena.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

Eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira:

— Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatzea eta, hala badagokio, eskuratzea.

— Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez izatea laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, ez eta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

— Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta beka honen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

*5. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.*

Azpeitiko Udaleko Kirol Sailak kudeatuko ditu dirulaguntzak.

*6. Emateko prozedura.*

Deialdi honetan arautututako beka, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan ezarritakoaren arabera emango da.

Prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdi publikoaren bidez.

*7. Azterketa eta beka ematea.*

Batzorde Tekniko bat osatuko da erakundeen eta gai horretan adituak diren kideez osatua, eta hau izango da aurkeztutako proiektuen artean Beka emateko ebaluazioa egingo duena.

Batzorde Teknikoko kideen izendapena webgunean argitaratuko da.

Batzorde Teknikoak proiektu bat baino gehiago proposatu ahal izango ditu, eta honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

1. Proiektuaren originaltasuna (% 29 gehienez).

2. Proiektuaren zailtasuna (% 29 gehienez).

3. Parte-hartzaileak (% 21 gehienez).

3.1. Parte-hartzaile euskaldunen kopurua (% 7).

3.2. Parte-hartzaileen parekotasuna (% 7).

3.3. EMFren lizentzia izatea, eskaera egin baino urte bat lehenago (% 7).

4. Jardueraren eta baliabideen finantzaketa (% 21 gehienez).

4.1. Aurrekontua (% 7).

4.2. Proiektuaren iraupena (% 7).

D.F.G.: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.

D.F.A.: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.

D.F.B.: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.

A.G.E.: Hacienda Foral de Navarra-Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de la obligaciones de la Seguridad Social.

Se acreditarán mediante declaración responsable incluida en la solicitud:

— La solicitud y, en su caso, la obtención de subvenciones, ayudas, ingresos u otros recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

— No hallarse la persona o entidad solicitante sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de ayudas o subvenciones públicas o no estar incursa en alguna prohibición legal que inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Que son ciertos los datos contenidos en la solicitud y documentación que le acompaña y que cumple con los requisitos establecidos en la normativa vigente para ser beneficiario/a de esta beca.

La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

*5. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

La gestión de las subvenciones corresponderá al departamento de Deportes del Ayuntamiento de Azpeitia.

*6. Procedimiento de concesión.*

La concesión de la beca regulada en esta convocatoria, se realizará de acuerdo con lo establecido en el artículo 22.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El procedimiento se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*7. Evaluación y concesión.*

La Comisión Técnica, compuesta por representantes institucionales y especialistas en la materia será la encargada de la evaluación de la Beca entre los distintos proyectos presentados.

El nombramiento de los miembros de la Comisión Técnica se publicará en la página web.

La Comisión Técnica, que podrá proponer más de un proyecto, tendrá en cuenta los siguientes criterios de concesión:

1. Originalidad del proyecto (29 % maximo).

2. Dificultad del proyecto (29 % maximo).

3. Participantes (21 % máximo).

3.1. N.º de participantes euskaldunes (7 %).

3.2. Paridad de los participantes (7 %).

3.3. Tener licencia de la FVM, tramitada mínimo un año antes que la solicitud (7 %).

4. Financiación de la actividad y recursos (21 % como máximo).

4.1. Presupuesto (7 %).

4.2. Duración del proyecto (7 %).

EK\CV GAO-I-2023-02665

4.3. Proiektua gauzatuko den lekua (% 7).

Lortutako puntuazioaren emaitza baloratu beharreko alderdi bakoitzean arrazoituko da.

Erabaki-proposamena horretarako eskuduntza duen organoari bidali ondoren, honek onartutako Beka esleituko du. Erabaki hori maiatzaren bigarren hamabostaldian emango da.

*8. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Prozeduraren ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean emango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntzarako eskabidea ezetsitzat joko da.

Dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpenak zer komunikabidetan egingo diren zehazteko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraituko zaie.

Dirulaguntzak emateak edo ukatzeak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, Azpeitiko Udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena eman duen egunetik aurrera. Azpeitiko Udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunean, eta haren esanbidezko edo ustezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo sei hilabeteko epean, errekurtsoa presuntzioz ezetsi eta hurrengo egunetik aurrera.

Deialdiaren ebazpena tabloian eta udaleko webgunean argitaratuko da, dirulaguntza programa atalean-tramitean dauden dirulaguntzak-atalean, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 45. artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek, bananako jakinarazpena ordezkatuko du, eta argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako.

Argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die norbanako edo erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

*9. Dirulaguntza ordaintzea.*

Emandako beka hori oso-osorik modu aurreratuan ordainduko da, maiatzaren bigarrengo hamabostaldian zehar egingo den jendeaurreko ekitaldi batean.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntza bateragarria da beste edozein administrazio publikok eman edo ezar ditzakeen laguntzekin. Esleitutako guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen diruz lagundutako jarduera.

*10. Irabazlearen betebeharrak.*

Beka irabazi duenak bete beharrekoak izango dira:

— Dirulaguntza jaso duen jardueraren informazio, publizitate eta jardueran Joxe Takolo Bekaren laguntza adierazi (Azpeitiko Udalak horri buruz ematen dituen jarraibideen arabera).

— Ekimenak dihardueen bitartean, erakundeetako ordezkariek erabakitako moduan eta, ekimena bukatu ondoren, antolatutako proiekzio-sarearen bitartez burututako esperientzia zabaltzen lagundu.

— Azpeitiko Udalaren aurrean justifikatzea dirulaguntzaren xede den proiektua, horretarako balantze ekonomikoa eta egindako proiektuaren memoria teknikoa eta grafikoa aurkeztu beharko da.

4.3. Lugar donde se ejecutará el proyecto (7 %).

El resultado de la puntuación obtenida será motivado en cada uno de los aspectos a valorar.

Una vez remitida propuesta de resolución al órgano competente, este adjudicará la Beca aprobada. Dicha resolución se llevará a cabo durante la segunda quincena del mes de mayo.

*8. Plazo de resolución y notificación.*

La resolución del procedimiento se dictará en el plazo máximo de tres meses desde la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado resolución expresa, la solicitud de subvención se entenderá desestimada.

Para la determinación del medio de comunicación en el que se realizarán las notificaciones de la resolución de concesión de la subvención se seguirán los criterios de la Ley 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y garantía de los derechos digitales.

La concesión o denegación de las subvenciones pone fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia, o recurso potestativo de reposición ante el órgano que ha dictado la resolución en el plazo de un mes a partir de la fecha de la misma. Al día siguiente de su publicación en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia, y contra su resolución expresa o presunta, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación de la resolución desestimatoria del recurso, o en el plazo de seis meses a partir del día siguiente a la desestimación presunta del recurso.

La resolución de la convocatoria se publicará en el tablón y en la página web municipal, en el apartado de subvenciones en tramitación del programa subvencional, de conformidad con lo establecido en el artículo 45 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Dicha publicación sustituirá a la notificación individual, que se entenderá practicada a todos los efectos legales a partir del día siguiente al de su publicación.

El mismo día de su publicación, el Ayuntamiento enviará un aviso a todos los particulares o entidades solicitantes, por correo electrónico, informándoles de las ayudas resueltas.

*9. Abono de la subvención.*

La beca concedida será abonada en su totalidad con carácter anticipado durante la segunda quincena de mayo en acto público.

La ayuda prevista en la presente convocatoria es compatible con aquellas otras que, pudieran ser concedidas o establecidas por cualquier otra Administración Pública. Siempre y cuando el importe total asignado no supere el de la actividad subvencionada.

*10. Obligaciones del perceptor.*

Serán obligaciones del perceptor de la Beca.

— Hacer constar en toda la actividad, información, publicidad y propaganda relativas a las actividades subvencionadas, la colaboración de la Beca Joxe Takolo (de acuerdo a las instrucciones que dicte al respecto el Ayuntamiento de Azpeitia).

— Contribuir a la difusión de la experiencia tanto durante el desarrollo de la actividad, a través de la colaboración que los representantes institucionales estimen oportuna, como al finalizar la misma a través de la red de proyecciones que se establezca.

— Justificar ante el Ayuntamiento de Azpeitia el proyecto objeto de subvención aportando para ello el balance económico así como una memoria técnica y gráfica del proyecto realizado.

EK\CV GAO-I-2023-02665

— Justifikazioarekin batera onuradunak gauzatutako proiektuari lotutako 15-20 irudi/argazki aurkeztu beharko dizkio Udalari beraien erabilpena egiteko, bekari dagokion webgunean publizitatea egiteko. Irudi/argazki horien erabilera eskubideak utzi beharko dizkio onuradunak.

Oro har, proiektua gauzatzeko eta gastuak sortzeko aldia (fakturazioa) 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Dirulaguntzaren xedea justifikatzeko, onuradunek dagokion justifikazio-kontua aurkeztu beharko dute, agiri normalizatuaren arabera, deialdiaren urtea amaitu eta hurrengo hilabetean, eta epemuga 2024ko martxoaren 31 izango da.

Dokumentu normalizatua Udalaren webgunean dago.

*11. Ez betetzea.*

Proiektua ez egitea edota araudi honetan adierazi diren laguntzak emateko erabakiorrak diren baldintzak ez balira beteko, dirulaguntza kendu egingo da eta jaso den diru-kopuru guztia itzuli egin beharko da.

*12. Interpretazioa.*

Udalak bere organo eskudunaren bidez erabakiko du Joxe Takolo Beka honen interpretazio, aplikazio eta ondorioen gainean sor daitekeen zalantza oro.

Aurkeztutako proiektuak kalitatezkoak ez balira edo eskaerak egon ezean, Batzorde Teknikoak Joxe Takolo Bekaren deialdia hutsik geratu ahal izatea proposatu ahal izango du. Kasu horretan ezarritako diru kopurua Bekarekin zerikusia duten alderdiak indartzeko erabili ahal izango da.

*13. Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Azpeitiko Udalaren (Plaza Nagusia 5, Azpeitia) ardurapeko datu tratamendu batean sartuko direla. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko, aurkaratzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, helbide horretara idatzi bat bidaliz.

Zure datu pertsonalak tratatzeko helburua da dirulaguntzen deialdia kudeatzea eta ebaztea, deialdiak duen interes publikoan eta parte hartzeko egin duzun eskaeran oinarrituta.

Eskatzaileen datuak jakinarazi ahal izango zaizkie zerga administrazioari eta fiskalizazio organoei kontabilitate kontrola egiteko, eta banketxeei, ordainketak kudeatzeko. Era berean, beste hirugarren batzuei jakinaraziko zaizkie, lege mailako araudian jasotzen diren kasuetan.

Datuak gordeko dira dirulaguntza emateko prozeduraren tramitazioak eta sor daitezkeen erreklamazioen tramitazioak irauten duen bitartean.

Zure datu pertsonalen tratamenduari eta zure eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan jar zaitezke helbide honetan: dbd@azpeitia.eus.

*14. Araudi ezargarria.*

Bere oinarri arautzaileetan ezarrikoaz gain, laguntza hauek Azpeitiko Udalaren dirulaguntzak arautzen duen udal-agintarauak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko urtarrilaren 26an argitaratua) eta Dirulaguntzen Araudi Orokorra arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautuko dituzte.

Azpeitia, 2023ko apirilaren 3a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (2665)

— La justificación deberá ir acompañada de 15-20 imágenes/fotos relacionadas con el proyecto realizado por el beneficiario para poder realizar la publicidad de la beca en la web correspondiente. El beneficiario deberá ceder los derechos de uso de dichas imágenes/fotografías.

Con carácter general el periodo de ejecución del proyecto y devengo (facturación) de gastos será desde el 1 de enero de 2023 hasta el 31 de diciembre de 2023.

Para justificar el objeto de la subvención, los beneficiarios deberán presentar la correspondiente cuenta justificativa según documento normalizado en el mes siguiente a la finalización del año de la convocatoria, estableciéndose como fecha límite el 31 de marzo de 2024.

El documento normalizado se encuentra en la página web del Ayuntamiento.

*11. Incumplimiento.*

La no realización del proyecto o en su caso el incumplimiento de las condiciones determinantes de la concesión de las ayudas a que se hace referencia en la presente normativa, conllevará a la retirada de la subvención con devolución de todas las cantidades percibidas.

*12. Interpretación.*

El Ayuntamiento a través de su órgano competente resolverá cualquier duda que pueda surgir sobre la interpretación, aplicación y efecto de esta Beca Joxe Takolo.

Si los proyectos presentados carecieran de la calidad suficiente, o no se presentara proyecto alguno, la Comisión Técnica podrá proponer que la convocatoria de Beca Joxe Takolo quede desierta. En ese caso, la cantidad prevista se podrá utilizar para reforzar aspectos relativos a la Beka.

*13. Protección de datos de carácter personal.*

Se informa que sus datos personales serán incluidos en un tratamiento de datos cuyo responsable es el Ayuntamiento de Azpeitia (Plaza Nagusia 5, Azpeitia) y ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido a la misma.

Sus datos personales serán tratados con la finalidad de gestión y resolución de la convocatoria de subvenciones, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos relativos a las personas solicitantes podrían ser comunicados a la administración tributaria, a órganos de fiscalización, para el control contable y a entidades bancarias para gestionar los abonos. Igualmente, se comunicarán a otros terceros en supuestos contemplados en normas de rango de ley.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede ponerse en contacto en esta dirección: dbd@azpeitia.eus.

*14. Normativa aplicable.*

Además de por lo dispuesto en estas bases reguladoras, estas ayudas se regirán por la Ordenanza municipal de subvenciones (Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 26 de enero de 2022) y por la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y reglamento que lo desarrolla.

Azpeitia, a 3 de abril de 2023.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (2665)

EK\CV GAO-I-2023-02665